

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2007 Martxoa • 37. zenbakia



TXINA



L.H. 3. maila

aurkibidea

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	7
INAUTERIAK 07	17
EUSKARAREN TXOKOA	21
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	25
GU ERE KAZETARI	28
NAHASTE BORRASTE	34

Oharra: ikasturte honetako Txinparteko azalak DBH 4. mailako Arte arloko ikasleak eginak dira



BATZAR NAGUSIA 2006/2007

Joan den otsailaren 23an izan zen Ikastolan Urteko Ohiko Batzar Nagusia; bertan landutako gaiekin ikastolako familia guztiak jasoak ditugu aurtengo bi txostenak. Hona hemen laburbilduz ikasturteko Planaz informazio esanguratsua:

BERRIKUNTZAK

- Informazioa bi txostenetan banatu da.
- 07/08 ikasturtetik aurrera irailean banatuko da bat, eta batzarrean bigarrena.

Bazkideen ordezkaritzan, AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- Kontseilu Errektoreko ordezkari berrien izendapena

AURKEZTU ETA ONETSI DIRA

- 05/06 ikasturteko gestio txostena eta gestio plana
- 05/06 ikasturteko kontuak, eta 06/07 ikasturteko aurrekontua



Batzar Nagusia 2006/07
otsailaren 23a

BERRIKUNTZAK

Txostenen banaketa



URTEKO GAIAK

- **ESTATUTU ALDAKETA.** Bi figura berri onartu dira: Bazkide ez-aktiboak (langile eta guraso ohiak) eta bazkide laguntzaileak (ikasle ohi, herritar, talde, elkarte...). Honekin batera, hainbat artikulua eguneratzea onartu da.
- **HONDAKINEN KUDEAKETA.** Kanpo eta barne komunikaziorako paperaren erabilera murrizteko planaren proposamena egin da, eta batzarrak onartu du. Laster batean aplikatuko da.
- **OIARTZUNGO HIRI PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAU BERRIAK.** Gai honetan ikastolaren interesak defendatzeko Kontseilu Errektoreak egindako ibilbidearen berri eman da, informazio gisa.
- **KMK 06: In yeu / in ñeu** lelopean, Kontseilu Errektoreak festaren balorazio orokorra egin du, eta datu ezberdinak aurkeztu dira.



2. HIRUHILABETEKO IRTEERAK


MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
HH1	URTARRILAK 18	BASORA	MAKILTXOAK...BILDU
HH1	MARTXOAK 13	DONOSTIARA	ZULOAGAREN KUADROAK ETA BRETXAKO MERKATUA IKUSI
HH1	MARTXOAK 23	BIDEGORRIRA	UDABERRIAREN ESNAERA BEHATU
HH2	MARTXOAK 14	HERRIAN ZEHAR	LANBIDE MOTAK BEHATZEA
HH2	MARTXOAN	HERRIKO LIBURUTEGIRA	EZAGUTU ETA ERABILTZEN IKASTEAK
LH			
1.	MARTXOAK 8	IRUNERA	ERROMATARREN AZTARNAK BEHATU
1 - 2	OTSAILAK 6	DONOSTIARA	ZINEMA EUSKARAZ
2.	URTARRILAK 10	DONOSTIARA UNTZI MUSEORA	EUSKAL ARRANTZALEEN BIZIMODUA EZAGUTU
2.	OTSAILAK 23	AZPEITIRA	INGURUGIROA NOLA ZAINDU LANDU
2.	MARTXOAK 7 ETA 9	LA CASA DEL CAFE	PRODUKTU BATEN EKOIZPENA EZAGUTU
3.	OTSAILAK 6	DONOSTIARA	ZINEA EUSKARAZ
3.	OTSAILAK 23	IKASTOLARA	SAHARAKO ANTZERKIA
3. - 4.	MARTXOAK...	OIARTZUNA	ZABOR ONTZIEN EGOERA IKUSTEA
3. - 4.	MARTXOAK...	IKASTOLARA	INGELESEKO SHOW-A
3.	MARTXOAK 2	IKASTOLARA	TXINAKO TXOTXONGILO EMANALDIA
4.	MARTXOAK 23	DONOSTIARA	INGELESEKO ANTZERKIA
3. - 4.	MARTXOAK 23	OIARTZUNA	KORRIKA TXIKI
3.	MARTXOAK 30	DONOSTIARA	HAIZEAREN INGURUKO ARTE LANAK IKUSTEA
5.	MARTXOAK 21	IPARRALDERA: SARA + BAIONA	EUSKAL HERRIKO IPARRALDEA EZAGUTU
6.	URTARRILAK 16	ERRENTERIARA	ZINEMA EUSKARAZ: "IKASGELA HEGALARIA"
6.	MARTXOAK 22	MADALENSORORA	BOTE-LUZE TOPAKETETAN PARTE HARTU
DBH			
DBH 1-2-3-4	URTARRILAK 31	AGENDA 21: HASIERA SAIOA	HONDAKINEN GAIAZ JABETZEA
DBH 3	OTSAILAK 6	DONOSTIAKO PARKE TEKNOLOGIKORA ETA KUTXAESPASORIA	PARKE TEKNOLOGIKO BAT EZAGUTZEA ZIENTZIAZ GOZATZEA
DBH 1-2-3-4	MARTXOAK 5-6	AGENDA 21: BIGARREN SAIOA	HONDAKINEN GAIAZ SAKONTZEA
DBH 3	MARTXOAK 12	AESLEME IKASTOLAN	BIDE HEZIKETA
DBH 4	MARTXOAK 15	IRUNGO AMAIA ANTZOKIRA: "LA ESCURRIDIZA" FILMA IKUSTERA	ETIKAKO ARLOAN GAIK SAKONTZEA
DBH 4	MARTXOAK	EKOCENTER BISITATZERA	BERRERABILERAREN FILOSOFIA ZABALTZEA
DBH 3	MARTXOAK 26	LARUN MENDIRA	BREITAINIAKO IKASLEEKIN TOPAKETA
DBH 4	MARTXOAK 28	OIARTZO IKASTOLA BISITATZERA	BATXILERGOKO ESKAINTZA EZAGUTZEA




OIARTZO BATXILERGO IKASTOLATIK

Dena ez dira liburuak eta eskolak Oiartzo aldean. Bada ere irteera, jaialdi eta horrelakoetarako betarik. Argazkietan jarri ditugu 2006-07 ikasturte honetako lehenengo hiru hilabeteek emandakoak.

Urrian Atapuercara joan ginen giza eboluzioaren inguruko aztarnategia ikustera. Benetan interesgarria topatu genuen irteera.




Azaroan Oiartzora bertara hurbildu zitzaigun Jon Elizalde musikari eta musika irakaslea. 2. mailako ikasleei eskainitako saioan, abesti bat nola egin, nola grabatu, nola nahastu eta nola masterizatu erakutsi zien. Oarsoaldea elkarrekin eskaini zuen. Arrakastatsua izan zen ekimena, eta 1. mailakoentzat ekainean errepikatzeko asmotan gara.





Abenduan, Diartzoko Euskara Taldeak antolatuta, Xabier Eguna ospatu genuen. Kantu lehiaketa, jokoak eta dantzak izan ziren nagusi. Argazkietan parte-hartzaile eta irabazleetako batzuk ikus ditzakezue.



Abenduaren 13an Santa Luzia eguna zela eta, Zumarragako ferian izan ginen, Euskal Herriko tradizio eder honen lekuko.

Bigarren hiruhilabetekoak Alemaniatic etorritako profesional langabetuen talde baten bisita ekarri zigun. Europako proiektu baten markoan, gaztelaniako ikastaroa eta lan praktikak egiten dituzte. Antolatzaileen artean, Isabel Marin irakasle ohia zegoen.





TXIKITATIK PAUSO SENDOAK EMANEZ.....

ORAINGOAN GURE GELETAKO UMEEK
 ESPERIENTZIA BERRI BAT BIZITZEKO AUKERA
 IZAN DUTE. ARTELANAK EGITEKO BETI
 ESKUAK ERABILI IZAN DITUZTE, BAINA
 HANKATXOEKIN ERE EGIN DAITEZKEELA
 FROGATU DUTE. A ZER NOLAKO
 SENTSASIZIOAK!! HOTZA, LEUNTASUNA,
 DESOREKA... ETA HAU DENA TALDEAN EGIN
 DUTE. HORTXE DAUDE DENAK BATA
 BESTEAREN ONDOAN, ELKARREKIN,
 TALDEKO PARTAIDE SENTITUZ. ERA BEREAN,
 BEREN HANKA ETA ESKUEN ARRASTOAK
 UZTERAKOAN BERE BURUA EZAGUTU DUTE,
 GARRANTZITSUAK SENTITU DIRA, HOR
 DAUDELA ETA BEREN TOKIA DUTELA
 OHARTUZ...



Handitzeko
 ibilbidea
 erraztuz
 doaz...

HH1 EKO IKASLEAK





**PRA, PRA, PRA, PRA
TZUNPA, TZUNPA, TZUN
ZIRKO BAT DATORKIGU...**

3 URTEKO NESKA-MUTILEK AUKERA POLITA
IZAN ZUTEN GURE ZIRKUA IKUSTEKO.
AURKEZLEEK A ZE NOLAKO IKUSKIZUNA
ESKAINI ZIGUTEN: ELEFANTEAK, TXIMUAK,
LEHOIAK, PAILAZOAK, BAITA DOMATZAILE
AUSARTAK ERE.



EMOZIOZ BETETAKO ASTEA IZAN ZEN, DENON
ARTEAN PRESTATU BAIKENUEN:

- ZIRKOAREN IZENA AUKERATU
- KARETAK PRESTATU
- ZER EGIN PENTSATU
- GELA APAINDU
- ENTSAIATU....



**ETA AZKENEAN...
FUNTZIOA!**

GUTAKO BATZUK
LOTSATI, URDURI...

ETA TXIKIAK

ADI-ADI



ETA BUKATU ZENEAN.... SORPRESA!!!

BEREN MUXU GORRIEZ BETETAKO OPARIA
MILA-MILA ESKER

HH 2KO IKASLEAK





GUERE GORPUTZA

HH3KO NESKA-MUTILAK GELAN, GIZA GORPUTZA LANDU ONDOREN, SARA ETA ALAITZ ERIZAINEN BISITA IZAN GENUEN. GORPUTZAREN ZAINTEAZ, ELIKADURA ONAZ ETA LOAREN GARRANTZIAZ HITZ EGIN ZIGUTEN.



HH 3KO IKASLEAK

PAPERA

PAPERA NOLA BERZIKLATZEN DEN EZ DAKIZULA? BAAAAA, BEGIRA ARGAZKI HAUEK ADI-ADI.



PAPERA TXIKITU



PAPER ZATIAK URA ETA KOLAREKIN NAHASTU BATIDORA ERABILIZ



PASTA MOLDEAN JARRI




LEHORTZEN UTZI



HEMEN PAPER BERRIA

1. MAILAKO IKASLEAK



KAFE GOXOA DASTATZEKO ZER EGIN BEHAR DA?

2. mailako ikasleek ikasi dugu gure gurasoek gustura asko hartzen duten kafea nola ekoizten den. Horretarako Ugalde-
txon dagoen "La casa del cafe" lantegira joan ginen. Juan
Antonio Armendariz jaunak erakutsi zigun lantegi osoa eta
zer egiten duten gure etxeetan kafe eder bat edan ahal iza-
teko.

BEGIRA, BEGIRA!!!

- 1.- Kafea zakuetan iristen da eta biltegi batean hustu egi-
ten dituzte. Xurgagailu baten bidez gora eramaten
dute tosta makinara.
- 2.- Kafe alea txigortu ondoren hozteko makinara eramaten
dute. Hoztu ondoren beste xurgagailu batekin beste
biltegi batera eramaten dute.
- 3.- Biltegiaren azpian dagoen zinta batera hustu egiten da
kafe alea gero ehotzeko.
- 4.- Azkenik, kafe ehoa paketetan sartzen da. Paketea itxi,
kaxetan sartu eta multzokatu egiten da. Kafe pakete
multzoak plastikoarekin bildu eta prest daude dendara
eramateko.

Mila esker, Juan Antonio. Asko ikasi dugu denok.

2. mailako ikasleak





" Last march the 4th level students put on a show for the 3rd level pupils. In this show called "Haurtzaro theatre", there were magicians, clowns, singers, dancers, master of ceremonies and a fantastic orchestra.

This show took place in the primary english classrooms and it was a great success. Our students from Haurtzaro school did a great job. Congratulations!"

I'm singing in the show
just dancing in the show
what a wonderful feeling
i don't want to go
elbows out...

("I'm singing in the rain" tune)



Euskal Herriko inauteriak

Gaur egun Euskal Herriak dituen zenbait ohitura jentilen garaikoak dira. Jentilak, mendialdean bizi ziren, horren lekuko dugu euskal kulturaren ardatz nagusia.

Urteen poderioz haien hizkuntzak eta kulturak atzeritik jasotako aldaketak izan ditu, hala eta guztiz ere, kulturak, ohiturak eta folkloreak bertakoa izaten jarraitzen dute. Guzti horren lekuko euskal inauteriak dira, gurasoek seme-alabei kontatutako ohiturak gaur egun arte iritsi direnak.

1.- ITUREN- ZUBIETAKO IHAUTERIAK


Ituren eta Zubietan, hiru kilometroko distantziaz bananduta dauden bi herrien antzinako pertsonaiak joaldunak dira. Beti ere, herri bakoitzak, ezaugarri bereziekin apaintzen ditu bertako joaldunak.

Iturengo eta Zubietako joaldunen arteko ezberdintasuna da, azken honetakoek ez daramatela ardi-larruzko txalekoa bizkarrean, eta lepoko zapia, zuri- urdin laukiez osatutakoa dela gorria beharrean. Zapiaren tamaina ere aldatzen da, Zubietakoen txikiagoa baita.

Urtarrilaren azken astean hasten da jaia. Bi herrietako joaldunek, Iturenen egiten dute desfilea edo erakustaldia: Egun erdi aldera, astelehenean, Aurtitz auzoan ongi etorriak izaten dira Zubietako zantantzarrak, hemen hasten da erakustaldia: bi zutabetan kokatzen dira, ibilera edo pausoen erritmo zehatza mantenduz, eta aldi berean, gerria "astinduz", joaleak ahal bezain beste soinu sor dezaten. Zutabearen aurreko aldean kokatuta dauden bi joaldunetako batek, adarra jotzen duelarik. Honela herri oso igaro eta herriko plaza- ra heltzen diren arte. Hurrengo eguna, asteartean, Zubietan Iturengoak izaten dira bisitari, eta ongi etorriak.

Argazki gehiago ikusi nahi izanez gero: http://www.dantzari.com/argazkiak/tokian-tokikoak/2006-01-30_Inauteriak-Zubietan-eta-Ituren-en/2006-01-30_Inauteriak-Zubietan-Ituren_180.jpg/view





2.- LANTZEKO IHAUTERIAK

Ihauteri hauek, Euskal Herria osoan oso ezagunak dira, jaiak duen indar estetiko eta dinamismoak herri inauterietako sinbolo bihurtu da. Lantz, Anue bailaran kokaturiko herri txiki bat da. Iruñeatik 25 kilometrora dago. Garai batean inguruan bidelapur anitz zirelako ospetsua.

Pertsonaiek, bidelapuraren senitartekoak zirela itxura eginez, heriotza zigorrean laguntzen zuten. Alde batetik, batzuek Miel-Otxin konfesatzen zuten. Ordea, beste batzuk, dama jantziekin pasioa irakurtzen zioten. Hauek bukatutakoan Txatxoak eta Damak negarrez hasten ziren. Funtzioaren alde hau, ziurrenik jendartearen eta erlijioaren eraginez, desagertu zen.

► KALEJIRA

Astelehenean goizeko 12etan hasten da. Oihuka eta uluka ostatutik ateratzen dira. Zaldiko amorru biziz behin eta berriro Ziripoten kontra jotzen du, Ziripot lurrera botatzen saiatuz, eta botaz. Bitartean Txatxoak dantzatzen, zirikatzen eta Ziripotei altxatzen laguntzen arituko dira. Perretzaileak Zaldikoren atzetik joaten dira baina ez dute harrapatzea lortuko. Kalejira Rekalde Etxera iristen denean (bertan ingudea eta sua prest daude) Zaldikori perrak jartzea lortuko dute. Orduan, Txatxoek lagunduko diotelarik Perretzaileari. Ondoren Kalejirako partaideak bazkaltzera joaten dira.

Ekitaldi hau hurrengo egunean errepikatuko dute. Baina egun honetan arratsaldean jarraituko du. Arratsaldean Zaldiko eta Ziripot ez dira ateratzen. Miel-Otxin epaitzen dute eta bi tiroz hil. Ondoren Txatxoek eta haurrek zatikatu eta su emango diote. Orduan erritual dantza bati hasiera emango diote, Lantzeko Zortzikoa. Honen musika XVIII. mendekoa da.

Bibliografia:

<http://www.ahari.org/eus/index.htm>



Egilea: Olaia Azpiroz
DBH 4B



Ni futbolaria banintz

Ni futbolaria banintz,
gol asko sartuko nituzke.
Gol asko sartuko banitu,
aberatsa nintzateke.
Ni aberatsa izango banintz,
nahiko nukeen guztia erosiko nuke.
Nik nahiko nukeen guztia erosiko banu,
gustura pasatzea lortuko nuke.
Nik gustura pasako banu,
zoriontsua izango nintzateke.
Ni zoriontsua izango banintz,
besteei lagunduko nieke.
Nik besteei lagunduko banie,
beraiek ere zoriontsuak izango lirateke.
Beraiek zoriontsuak izango balira,
ez lirateke inoiz haserretuko.
Inoiz haserretuko ez balira,
ez genituzke errietak edota haserreak izango.
Haserreak izango ez bagenu,
hobeto moldatuko ginатеke.
Hobeto moldatuko bagina,
primeran biziko ginатеke.



Egilea: Inti Burga
LH 6A





NOLA EGIN GAZTEON NOTA TXARREN ARAZO BUKAEZINARI AURRE?

Betidanik izan da arazo nagusia gazte aroan. Gaur egun, nota txarren kopurua handitzen ari da eta arazo kez-
kagarri bihurtzen.

Nire uste apalean, nota txarren arrazoirik ohikoena motibazio falta da. Ikasteak ez digu interesik pizten, nahia-
go izaten ditugu aisialdirako ekintzak. Askotan, azken hauetan, buru belarri sar-
tzen gara dena alde batera utzita. Bestalde, lagunarteak presioa
eragiten du. Nota onak lortuta, baztertuta geldituko garela
pentsaraziz, nota kaskarragoak ateratzera "behartzen"
gaituzte. Nota onak ateratzea ez da gustagarria suer-
tatzen gehienentzat, honez gain, inbidiaz jota, min
egitera joaten dira batzuk.

Motibazio eskasiaren beste kausa bat, etxe
giroa izan daiteke; txiki-txikitatik ikasleari ino-
lako garrantzirik ematen ez badigute guraso-
ek, gazteek ere ez dugu ikasteko motiborik
ikusten eta lanaren esfortzuari uko egitea-
gatik, gorrotoa ere sor daiteke ikasketekiko.

Halaber, beste arrazoiren bat ere izan daite-
ke arazo honen eragile; zailtasunak eduki-
tzea, arazo fisikoren bat... kasu honetan
gurasoen laguntza behar- beharrezkoa da.



Lehenik eta behin, gaztearen ondoan daudela era-
kutsi behar dute, konfiantza eskainiz. Berarekin hitz
egin, arazo horren sorrera aurkitu eta bere arazoaz
ohartarazi behar zaio. Gurasoen laguntza funtsezkoa da
gazte garaian. Gaztea mundu berri batera sartzerako eta
kanpotik heldua eta indartsua dela adierazi nahi badu ere, intseguri-
tate eta izuak harrapatzen dute; nola jokatu lagunaren aurrean, aldaketa
ugari...laguntza beharrezkoa dute, eta barnean dutena kanporatuz asko lasaituko dira. Ikasketen aurrean ere
zalantza asko aurkitzen ditugu. Beraz, ikasketekiko jarrera egokia behar dugu; interbide egokiena ordutegi bat
prestatzea da; honela, aisialdirako eta ikasketatarako nahikoa denbora edukiko dugu. Ordutegia egiteaz gain,
betetzea eta kontrolatzea da gazteen helburua. Hortaz aparte, arazo fisiko edo psikologiko baten aurrean
badaude, klase partikularrei edo profesional baten laguntzari esker aurrera jarrai dezakete, bai guraso eta bai
gazteek.

Laburtuz, seme-alabaren ondoan egonda, bere laneko dudak eta duda pertso-
nalak konpartituz, konpontzen lagunduz eta motibatuz, beraien seme- alaben
etorkizun oparoa ziurta daiteke.



Egilea: June Retegi
DBH 4B



NOLA INDARTU NESKEN FUTBOLEKO EKIPOA?

Aizpea Makuso Etxebeste naiz eta Oiarzun Kirol Elkarteko nesken talde batean jokatzen dut. Hasi berriak gara Gipuzkoako futbol txapelketa jolasten, baina taldeko bost jokalarik min hartuta gaude eta ez dira astebetekoak, baizik eta hilabetekoak. Nahikoa jokalarik egon ezean, aurkariei jokoa irabazitzat emango zaie. Orduan, partida dezente galduko ditugu.

Lesio gehienak guk jolastu eta entrenatzen dugun lurrarengatik dira. Hartxintzarrezko eremu batean jokatzen dugu. Lur hori gogorra denez, futboleko aritzerakoan, hanketako gihar eta ligamenduak oso erraz minberatzen dira. Honen ondorioz, gure taldeko lesionatu gehienak, belaunean mina edota ligamenduko esginzeak ditugu.


Nire iritziz, bi irtenbide daude: Lehena, belar artifizialezko edo kautxuzko zelaia jartzea izango litzateke. Lurzoru hau bigunagoa izango litzateke eta ez genuke horrelako lesio arriskurik izango.

Horrez gain, ez du mantenu askoren beharrik. Bigarrena, neska gehiago fitxatzea gure talderako. Honekin, ez genuke futbol partidarik galduko jolastu gabe eta jokatuz irabazteko aukerak edukiko genituzke.

Laburbilduz, nire ustez, belar artifizialezko edo kautxuzko zelaia jartzea eta neska gehiago fitxatzea izango litzateke irtenbiderik egokiena.








Inauteriak 07



Inauteriak









Kilometroetatik KORRIKara EUSKARAREN alde



Oilarrak kukurrukuz
Ozenki hor kükürüküz
Herri hontan zer ote da?

Heldu heldu Korrikari
Heldu heldu Euskarari
Ibiliz goitik behera
Karrantzatik Iruñera!

Mendez mende euskalduna
Izan da Euskara-duna
Aintzina egin beza!



"Horrela sartu ziren Iruñera
amona, Txanogorritxo eta
Otsanda, lepoan zapi gorria
zeramatela"



Denen arten pixkan pixkana
denok gogoan jarrita
batetik Hautzaro, Eskuttun ta
Gaztetxea ta lurrita
eta beste moduko laguntzak
izango ditu hamaika
denen artean aurtengoan ere
egingo dugu Korrika



Arazo honi aurkitu behar
zaio orain irteera
gure hizkuntza zaintzerakoan
hezten da norbera.
Garai batean gure euskara
ezin zen irten kalera
emakumeei esker euskarak
jarraitu zuen aurrera

PILOTA TXAPELKETA



- binakakoa da
- martxoaren 12tik 16ra eta 19tik 23ra izango da
- Arduradunak: ESKUTTUN

Zer egingo duzu Korrikaren alde?

- ❖ LAGUNEREN KORRI ASKO EGIN (Haur Hezkuntza)
- ❖ Euskararen alde egin, euskaraz itzegin (LH-1)
- ❖ Euskaraz korri egin (LH-2)
- ❖ Elkar lagunduz eta animatuz beti euskaraz (LH-3)
- ❖ euskaraz kantatu, jolastu, mintzatu eta bizi. (DBH 1. zikloa)
- ❖ Korrika gazteko antolakuntzaren parte hartu. (DBH 2. zikloa)



Euskal emakumeari omenaldia

euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria eta lan horretan euskal emakumeak izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraipatu nahi ditu Korrika 15ek. Urtetako menderakuntza, jazartze eta zigorrei aurre egiteko eta euskal kultura eta euskara, belaunaldi belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indarra, adorea eta balioa omendu nahi ditu.

Gurekin ditugu Mari Karmen Labandibar, ikastolaren sorrerako guraso ordezkaria, eta Arantxa Madariaga eta Izaskun Zubeldia, urte askotan irakasle izandakoak. Ofizioz edo afizioz Haurtzaro ikastolako sorreran buru-belarri aritutako hiru emakume, beste batzuekin batera euskara eta ikastolaren sarea behar den moduan egituratzeko, guraso edo irakasle edo herritar moduan, ondokoaren laguntza eta itzalaren babesean aritutakoak; eta geroztik Korrika asko bisitutakoak. Eta beraiek gure artean izanda, beste emakume asko gogoan izan nahi ditugu.

Lehengo otsailaren 26an, Kursaalera areto dotorean Korrikako arduradunek sua piztu zuten, euskararen irudia izan nahi zuen sua, eta su hori ez itzaltzeko emakumeek egindako lana goraipatzen zen bitartean.

- Zuek ere, duela 39 urte Oiartzunen, euskararen aldeko sua piztu zenutela esan al dezakegu?

- Beno, orduan herrian ikastola behar zela argi genuen, eta hasierako ideiarekin aurre egin baino lehen etxetik galdezka ibili ondoren, lehen taldearekin gogoz hasi ginen. Eta kezka azaltzen zirenean, hauxe galdeztzen genuen: "Eta orain ez bada, ikastola noizko?"

- Irudi berarekin jarraituz, hauspoa indartsua al zen? Eztarri asko al ziren inguruan haizea ematen?

- Ba, denak familia bat bezala ikusten ginen, elkarrekin, denen beharrean. Bai guraso, irakasle edo herritar... lanerako ez genuen bereizketarik egiten, denak musu-truk euskara eta ikastolaren alde.



- Orduan, zein zen zuen helburua?

- Euskaraz erakustea. Hori zen nagusiki, eta horretarako pausu asko eman behar ziren. Hasiera hartan kontzientzia bazegoen, baina proiektuan murgilduta, indarberritzen ginen. Eta hasierako 12 ikasle, handik gutxira 18 ziren...gaur arte.

- Kontaiezaguzue orduko anekdotaren bat; askotan kontatua iruditzen bazaizue ere, lasai, gaurko haur eta gurasoek gustura entzungo dituzte.

- Garai haietan edozein ekimenetarako (bilerak, jaialdiak...) baimen bereziak behar izaten genituen. Eta nola edo hala, zirrikituren bat topatzen genuen, eta asko harrituta uzten genuen. Behin bi ama trebe gobernu zibil-etik barrena ibili ginen, eta azkenean behar genuen baimena lortu ere bai. Orduko alkateak ezin zuen sinistu nola lortu genuen.

- Ikasleekin ari ginenean, inspektoreen izua izaten genuen, eta beti badaezpadako erantzuna prest izaten saiatzen ginen.

- Egoera halakoa zen. Irakasleen soldata ez zen handia, baina gurasoak, edota denen artean bildu behar izaten genuen. Horregatik batera eta bestera jo behar zen, eskuina eta ezkerre erabiliz.

- Herritar batek milioi bat pezeta eman zituen. Pentsa! garai haietarako asko zen.

- Baloratua izan al da zuen lana? Esker onik jaso al duzue?

- Ikastolan hainbeste ume egotea pozgarria da. Hau da eskerrik onena. Eta gero, nolako heziketa jasotzen den.



- Emakumea izateak lagundu ala oztopatu zizuen ekimen hartan?

- Oztopo ez. Orduan ere "in behar zen". Irakasleak ez, behintzat.

- Eta emakumeak (Kontxi, Ixar, Milagros... eta abar) lan itzela egiten genuen.

- Nola antolatzen zen garai hartako emakumea?

- Ba, nolabait: etxea, familia, ikastola... Ardura oso onartua genuen, eta horregatik agian amatasun baimenak edo bestelakoak ez genituen izaten. Aurretik beste zerbaite zegoen beti.

- Beste garaiak ziren, eta ama... ikastola garbitzera.

- Zer iruditzen zaizue aurtengo Korrikak emakumea omendu nahi izatea?

- Oso ongi. Gure etxeetatik hasita, haurrak euskara ama edo amonarengandik jaso izan du, bereziki. Irakasle papera ere nagusiki emakumeak bete du.

- Oraindik ere emakumearen lana nahitaezkoa ikusten al duzue? Edo gauzak asko aldatu dira?

- Askok aldatu da. Azkeneko urteetan egin den lan guztia oraindik mantendu behar da. Baina, gehiago ere egin behar da. Nahi bada, badago non.

- Euskarak ematen al du oraindik bizi-poza?

- Bai, asko. Egin den guztiak.

- Kilometroetan jo eta ke aritu zineten...

- Kilometro asko egin ditugu. Aurrekoa, aurrekoaren aurrekoak... Klase askotako kilometroak. Azkenekoan, hiruak ere salmentan aritu gara. Gustura. Eta eguraldi zoragarriari esker, azken egunean disfrutatu genuen.

- Korrika beharrezkoa al dugu oraindik?

- Euskararen alde egiten den guztia behar da, nahiz eta Diartzunen beste herri batzuekin konparatuz egoera onean gauden.

- Nori pasa behar diogu lekukoa?

- Ondotik heldu diren guztiei, hainbeste gazteri, Jesus!

- Zuei ere bai. Aspaldian zuek ere ekimen askotan azaltzen zarete.

ESKUTTUN
euskara elkartea





Gazte Forua

Diartzungo gazteentzat hilabeteko ekintza bat antolatzea du helburu.

Horretarako, Elizalde eta Haurtzaroko DBH-ko gela bakoitzeko ordezkariak, Nekane Martiarenarekin elkartzen dira asteazkenetan lekua txandakatuz. Bertan, hainbat proposamen aipatu eta adosten dira. Adibidez, trialsin erakustaldia, mimo tailerra, sukaldaritza tailerra, etab...



Kuadrillategi



Kaixo lagun!

Berriz ere hemen gaude gure planak azaltzeko prest! Denok dakigun bezala, aurtengoa gure bigarren urtea da, eta jada gauza asko egin ditugu; hainbeste ideiarik gabe geratzearaino. Baina lasai, berriz ere indarrak hartu eta eskaintza ugari antolatu baititugu, animatzen al zara?

Izotz jauregira joan ginen, larunbata arratsaldea pasatzera, biraka, saltoka, atzerantz zein aurrerantz.. erori ere egin ginen, kar kar kar...baina ondo pasa genuen. Beste behin lorontziak margotu genituen: norberak bere barneko sormena piztuz, artelan ederrak eginaz, filma bat grabatu dugu... Eta gainera, loreak ere jarri genituen, nola ez! Beste gauza asko ere egin ditugu...

Orain, bi asteko ikastaro bat egiten ari gara, iragarkiak egiten ikasteko, eta ondoren lehiaketa batera aurkeztuko dugu; gustuko al duzu ideia? Gainera, bertso saio bat, bi irteera, argazki lehiaketa bat, kirol olinpiada... geratzen zaizkigu egiteko.

ANIMA ZAITEZ, LAGUNAK EGIN ETA ONDO PASATZERA!!

Agur bero bat, Kuadrillategiko gazteak.



KALEAN IBILTZEN IKASTEN

Kaleak haurrari bere garapenean laguntzeko aukera asko eskaintzen dizkio (alderdi motorea, komunikazioarena, soziala...) eta globaltasunean hezteko ingurune paregabea da. Gainera, zenbaitetan, kaleak barruko espazioek (gela, etxea...) eskaintzen ez dituzten aukerak eskaintzen ditu. Horrexegatik, haur eskolan egunero erabiltzen saiatzen gara espazio hori, eguraldiak laguntzen duenean, noski.

Dena den, kalean oztopo eta arriskuak ohikoak dira eta are gehiago oraindik hain kontziente ez diren gure txiki hauentzat. Ez dugu horregatik, ordea, atzera egin behar, izan ere, gure helburuetako bat baita arriskuen aurrean HEZTEA.

Arriskuak badira, hor daude eta gure lana haurraren ongizatea eta segurtasuna bermatzea da. Hala ere, beren trebetasunean eta zentzuan konfiantza izatea garrantzitsua da eta gure beldurren baitan ez hezten saiatu behar dugu, haurraren behar baino eragin handiagoa izan ez dezaten.

Gure haurren adinean, 1-2 urte, ez da hainbeste denbora oinez ikasi dutela eta gorputzaren kontrola behar adinakoa ez denez, horixe bera "arrisku" bilakatu da, eta oreka-desorekak uste baino gehiagotan bizitzen dituzte. Kaleko oztopo eta gorabeheren aurrean nork bere buruaren kontrola lantzen du.

Maldetan, eskaileratan, esaterako, goranzko bidea errazagoa da eta bakoitzak bere aukeren arabera igotzeko hainbat modu erabiltzen ditu (katuka, barandari helduta, bakarrik...). Maldan behera ibiltzeak abilezia handiagoa eskatzen du, ordea. Batzuek aurrera egiten dute, bere gaitasunetan konfiantza dutelako edo zenbaitetan baita arriskurik ikusten ez dutelako ere. Beste batzuek arriskuen aurrean ez dira seguru sentitzen eta laguntza eskatzen dute. Halako kasuetan, beren burua estu eta larri sentitzen dutenean, hor gaude gu, bultzada txiki bat eman eta aurrera

egin dezaten animatzeko. Arriskurik ikusten ez dutenean, egoeraz ohartarazten saiatuko gara.

Haurrek oinez ikasten dutenean probak egiten dituzte; esate baterako, korrika joan eta nahita gelditu. Maldan behera doazenean gelditzea zailagoa da eta kontrol handiagoa eskatzen du. Aurrerago, hain gustukoa duten altueretara igotze horrek ere abilezia eskatzen du eta askotan helduak urduritzen garen arren, haurraren handitzearen parte dela pentsatu behar dugu. Ariketa hauek, askotan, lagunak imitatuz egiten dituzte, haien arrimuan gauza asko ikasten baitituzte.

Dena den, ez ditugu bestelako arriskuak ahaztu behar eta handienetakoa autoena da. Kontu hau txiki-txikitik karroan edo kaleko aukietan doazenetik lantzen dugu, baztertu egin behar dugula adieraziz, zergatik... Haurrak adin honetan gai dira arau hauek ulertu eta barneratzeko eta horren adibide dugu egun auto bat datorrela adierazten dugun bezain laster, asko bakarrik eta berehala baztertzen direla.

Haur bakoitzarengan konfiantza jarri arren, kanpoko faktoreak ere kontutan eduki behar dira; esaterako, lagunek nahi gabe bultzatzea, oreka galtzea, etab. Horregatik, arriskua handia den tokietan (altura handiak, erreka bazterra...) mugak ondo markatzen ditugu. Halako tokietara iritsi eta bertan zerbait egin nahi izan dugunean (ahatei jaten eman, harriak errekarabota...) kurtso hasieratik araua jarri genuen: lurrean eserita jarri. Denbora aurrera joan ahala, arau hau barneratu dute.

Gogoan eduki behar dugu haurrek kuriositate handia dutela, "egiteko" gogo, trebatzekoa... Beren interesak, gaitasunak eta kaleak eskaintzen diguna uztartuz, haurrak bere garapenean aurrera egingo du.

PARTZUERGOKO HEZITZAILEAK



PAPERAREN EKIMEN BERRIAK!!!

Ospatu berria dugun Batzar Nagusia aurkeztu eta bertakoek onartu bezala, datozen asteetan ikastolak bere komunitatea osatzen duten gurasoekin harremanetan jartzeko egun duen komunikazio sistema berritzekotan dago.

- **KANPORA begira:** Innobaziorako bide berri honek egungo IKTak erabiliz, ingurumena zaindu, ikastolako paperarekin erlazionatutako gastuen kontsumoa gutxituko dugulakoan gaude; hala nola, inprimakiak, papera, tonerrak....

ONURAK (Lehen aipatutako HELBURUAK)

Idazkaritzako langileek DENBORA libratu
Oharren: GALERA ekidin

Paperaren KONTSUMOA GUTXITU

Paper inprimatu GUTXIAGOREKIN TONER
kontsumoa GUTXITU Fotokopista eta
fotokopiagaluaren ERABILERA GUTXITU

IKASTOLAK BIDALITAKO OHAR HORIEN
GUZTIEN BILTEGIA ETXEO ORDENAGAILUAN
OSATZEKO AUKERA

E-POSTAZ

Nahi duten guraso multzoek egunean eguneko e-postas jasoko dute

PAPERERAN

1.- Oharrak **astean behin**, ostiraletan, banatuko dira (DBHn 13.00tan eta LH 4.30tan). Gehienez ere, bi orrialdetatik fotokopiatutako dokumentuan (**OHI-KOA**)

2.- Bestalde zuzendaritzak, astean behin, **beste zirkular bat** (orrialde batekoa) bidaltzea erabaki dezake (**BEREZIA**)

Hau da, **GEHIENEZ ERE**, astean, bitan (ohikoa eta berezia) jasoko da zirkularrik etxean.

3.- Ohar bi horiek ere. Ikastoako sarreraren **INFORMAZIO PANELAK** erabiliz irakurgai jarriko dira.

Hauetatik kanpo geratuko litateke, geletako eta batzar nagusiko bileretako txostenak

SMS bidez

Premiazko oharrak bakarrik.

- **BARRUKO jarduna:** bestalde, ikasleak eta irakasleen arteko harremanetan paperak duen presentzia ere gutxitu nahian, jardun bide egokien dekalogo osatu dute DBHko ikasleek poster batean. Honako posterra ikastolako ikasgela guztietan kokatuko dute Aste Santuko oporrak baino lehen.

Zorionak Josu Arotzenari!

Hautzaro ikastolako irakaslea den Josu Arotzenak diseinatu, garatu eta ikasleekin batera lantzen duen Oihartzun ibaiaren azterketa ekologikoari buruzko webgunea zein CDa, Euskal Herriko txoko ezberdinetara iristen deneko froga dotorea jaso berria dugu ikastolan. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle gazteok sortu berria duten www.euskalnatura.net izeneko webguneko koordinatzailea den Antton Alberdi bera ikastolara zuzendu egin da, Josuren lana goraipatzeko asmoz.

Zorionak Josu! Kanpotik goraipamenak jasotzeak bertakoak baino esanguratsuagoak gertatzen baitira sarri askotan. DBHko lehen zikloko Zientzia Tailerreko ikasleei tresna ezinhobeak eskaini izanak gure ingurunekeko ekosistemek nola funtzionatzen duten ulertzeko eta maitatzeko aukera pizten dielakoan gaude.



Azkenik, koordinatzaileak berak eskaini dio Josuri aipatutako lanak beraiei
www.erreportajeak.euskalnatura.net -en integratzeko gonbitea.



Globalizazioaren zurikeriak eta lotsak¹

Globalizazioari buruz asko hitz egiten da, asko entzuten dugu eta askotan datu entsalada, zaparrada, moduan jasotzen ditugu. Eta horrelaxe jarriak daude hemen, bere gordintasunean eta era berean sortzen duten nahasmen guztiaekin.

Datuak, asko, denak? diruarekin lotuak daude:

- Hamar pertsonak, planetako hamar aberatsenak, berrogeita hamar herrialdek duten aberastasuna baino gehiago dute eta 447 aberatsenek gizakiaren erdiak urte batean irabazten dutena baino gehiago dute.
- BBVA: 3806 miloi € irabazitan. Inoiz baino gehiago. Banco Santander: 6220 miloi € irabazitan. Telefonica: iaz baino %40 gehiago irabazitan. Non dago ekonomia-krisia?

Garrantzia dirua izateari ematen zaio, baina diru hori droga trafikoan, pertsonen salerosketan, delituetan lortu den galdetu gabe. Gauzen balioa dirutan balio dutenarekin nahastu al dugu?

- Farmazia-industriaren irabaziak dira handienak. Eta ikerketan gastatzen dutena baino 3 aldiz gehiago gastatzen dute publizitatean.
- 1995. urtean munduko HIESaren %75 kasu Afrika beltzean izan ziren. Gaitzaren babeserako nazioarteak zuen diruaren % 3 jaso zuten.
- Afrikan, orain dela gutxi, 24 miloi pertsonak HIES zuten. Han, ia ez dago botikarik banatzeko.
- Gaixotasun baten ikerketari ekiteko aberatsak, gaixotasun hori izan behar dute. Inguru pobretan bakarrik gertatzen denean ez zaio garrantzirik ematen.
- Botikak farmazia-industria multinazionalen eskuetan daude, beraiek erabakitzen dute eta botere politikoa baino indartsuagoak dira.

- Botika baten monopolioa 20 urtekoa da. Hau amaitu bitartean beste inork ezin du saldu. Zer da aurrekoa, patentea edo bizitza eskubidea?

Gauza gehienetan, globalizazioaren ondorioz nazioarteko harremanak erlazio finantzario-komertzial hutsa bihurtu dira eta boterea demokrazian baino gehiago diruan dago.

- Munduko bakea beren eskuetan duten herriak dira munduan arma gehienak saltzen dutenak.
- Arma saltzaile nagusiak hauek dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Errusia eta, pittin bat atzerago, Txina. 5 herrialde hauek dira beto eskubidea dutenak Nazio Batuen Erakundean.

Haur eta gaztetxoengatik inguruan gabiltza, eta datuek diote haurrak, haur izateko eskubiderik gabe daudela. Eguneroko jarduerak barre egiten duela eskubide horretaz, kaleko eskolan. Munduak, haur aberatsak, dirua izango balira bezala ikusten ditu, ohitu daitezten eta dirua bezala portatu daitezten. Munduak, haur pobreak, zaborra bezala erabiltzen ditu zaborra bihurtu daitezten.

Eta datu gehiago...

- Nazio Batuak bakerako gastatzen duen dolar bakoitzeko munduak 2.000 dolar gastatzen ditu gerran.
- Ekuador: 1960. urtean behar zuen garia sortzen zuen. Orain %97 erosten du. Hondamendia, Estatu Batuak donazioak egiten hasi zenean gertatu zen. Orain Estatu Batuari erosten diote.

Badakigu, ia ziurtasun osoz, gure ondorengoek ezingo dutela guk hobetu dugun hainbat hobetu. Badakigu Planetak ez duela kontsumo erritmo hau mantentzeko gaitasunik eta ia ziur dakigu ere, kontsumitzeari uztea dela egoera hobetzeko modu bakarra, baina dena prestatua dago kontsumitzeko, dena prestatua dago kontsumitzen ikasteko.

¹ Iturriak: Patas arriba. La escuela del mundo al revés. Eduardo Galeano. 2000
Otro mundo es posible. TVE2ko dokumentalak.



HAURTZARO ATLETISMO TALDEA



Haurtzaro ikastolak aspaldidanik badu altxor bat, isilpean, bere balioa handituz doana. Altxor hau Haurtzaro Atletismo Taldea da, duela hogeita bost bat urte sortu zena; gazte oiartzuarrei kirol honen berri emateko asmoz eta berau praktikatu ahal izateko aukerak emateko. Hasieran Bixente Artola entrenatzailea zuten eta Periko Sanroma ondoren.

Haurtzaro Atletismo Taldea hainbat txapelketatan ibili izan da, eta hauetako batzuetan nagusitu da. Estatu mailara ere iritsi dira zenbait taldekide. Honen adibide ditugu Ainhoa Elizalde (Espainiako txapelduna eta errekorra), Ainhoa Pikabea (Espainiako 2.a), Imanol (Espainiako 3.a) eta Maitane Azpeitia, egun jauzi hirukoitzean Espainiako txapelduna eta errekorra duen 18 urteko neska gaztea, etorkizun esanguratsua izango duena dudarik gabe. Jada Haurtzaroko taldean ez dabilen arren, bere maila dela eta, ez du ahazten bere lehen urratsak eta oinarria hemen ikasiak dituela eta dagoen lekura iristeko garrantzitsua izan dela. Honenbestez, ahal

duen neurrian, Haurtzaron atletismoan dabiltzanak ahal beste lagundu eta animatzen ditu.

Beste batzuk ere iritsi dira Espainiako txapelketa-ra Euskadikoa irabazi ostean; horietako batzuk ditugu Olaia Azpiroz, Hodei Mujika eta Maitane Toledo.

Haurtzaro ikastola, talde bezala, krosean, Euskadiko Txapelduna, eta pistean, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelduna, geratu izan da. Beraz, ezin da ukatu Haurtzarok garaikur asko eta lorpen handiak izan dituela eta dituela. Gainera, esan beharra dago baliabide eskasak dituela, Oiartzunek ez baitu atletismo pistarik, ezta material egokirik ere. Horrengatik, meritu bikoitza du, ez bere lorpenengatik soilik, baita Gipuzkoa mailan duen izen handiagatik ere.

Hogeita bost urte hauetan neska-mutil ugari pasa izan dira atletismo taldetik, baina beti neskak izan dira gehienak. Gaur egun, atletismo taldea osatzen dutenak Uxue, Aintzane, Ainhoa, Fatuma, Aroia, Itsaso Aldai, Sandra, Itsaso Marcos, Hodei, Gara-



zi, Udane, Naroa, Olaia, Iker, Haitz, Jokin, Gorka eta Jon Ander dira. Atletak gazte hauei galdetu ostean honako hau ondorioztatu dute "atletismoan mutil gutxiago egoteko arrazoietakoa bat futbolarak eta esku pilotak txikitatik mutilengan duten eragina da, izan ere hedabideetan eta Euskal Herrian garrantzi berezia dute bi kirol hauek; horregatik hauetako bat auke-

dela atleten kopurua. Beraz honen bitartez Haurtzaro Atletismo Taldearen izenean, baita gainontzeko talde gipuzkoarren izenean ere, kirol hau hautatzeko deialdia egiten dizuet, edo behintzat merezitako onespene eta errespetua emateko. Izatez kirol gogorra da, baina guk baztertzen badugu are gehiago. Beraz, Haurtzaroko Atletismo Taldeak egiten duen



ratzeko joera dute. Neskek, aldiz, orokorrean, gainontzeko kirolak baino atseginago dutelako eta lagun taldeetan apuntatzen direlako". Halere, behin DBHn hasten direnean askok utzi egiten dute, beren esanetan lana ugaritu eta lehentasun nahiz zaletasunak aldatzen direlako. Bestalde, atletismoa kirol oso gogorra da; emaitzak, denborak, markak... hobetu ahal izateko asko eta gogotsu entrenatu beharra dago eta bakarkako kirola denez, txapelketetan, denak dira etsai, soilik norberarenekin egin beharra dago eta azkenean oso gogorra egiten da. Nahiz elkar lagundu eta animatzen duten.

Gipuzkoa mailan, orain dela hamar urte baino 1000 atleta gutxiago daude. Egoera ez da hain kezagarria, urtero gorabeherak izaten direlako, baina egia da behin 12/13 urtetik aurrera nabarmen gutxitzen

lan guztiari txalogarria dela deritzot eta zorionak eman beharrean gaudela Haurtzaro, eta aldi berean Oiartzun, Gipuzkoa eta baita Euskal Herria ere maila gorenean jarri duelako.


Honenbestez, eskerrak ematea, orain arte bezala lanean jarrai dezaten esatea eta neska-mutil hauei animuak ematea besterik ez zait geratzen. Esan bezala, altxor handia baitauekagu, isilpean, lan ugari egiten duena eta kirol honi bizia ematen diona. Ez da gutxi, ezta?

Besterik gabe, zorionak egiten ari zareten lanagatik eta zorte on aurrerantzean ere.

Egilea: MAITANE TOLEDO LARDI
Oiartzoko ikaslea



ATLETISMOKO PISTA BEHAR DUGU



Orain aurkeztuko dudan arazoa Oiartzunen duela urte asko plazaratu zen gaia da, baina ikus daitekeen bezala, oraindik ez zaio irtenbiderik eman, edota besterik gabe arazoaz "paso" egin da.

Hurtzaro ikastolan atletismoko taldea dugu, jada jende askok dakien gisan. Eta urtetik urtera geroz eta atletismozale edo kirolzale gehiago etortzen dira taldea handitzera, eta, noski, entrenatzera. Baina, bistakoa den bezala, ez dugu non entrenatu; beraz, ikastolako harritzko futbol zelaian, ondoko eskailertan edota frontoian egin behar izaten dugu. Atletismoan behar bezala ibiltzeko, eta ahalik eta marka onenak egiteko, ezinbestekoa da ondo entrenatzea. Baina, nola entrenatu? Futbol zelaian biraka, eskaile-rak igoaz eta frontoian alde batetik bestera korri eginaz? Ez; ez da aski. Hasiera batean, nahikoa da ekintza horiekin entrenatzea. Baina jada bosgarren urtea denean, eta kirol-maila handia dagoenean, ez. Horregatik joan behar izaten dugu inguruko herrieta-ra entrenatzera.

Herrian atletismoko pista edo eta modulu deritzon pista zati bat ez jartzearen kausak ez dakizkit argi. Soilik dakidana da kostua handia dela eta... ez dela ezer eraiki. Baina nik galdetzen dudana da: Oiartzunen futbol-zelai nahikoa eduki arren, horien artean Ugaldetxo auzoan dauden bi zelai handi, eta esan didatena egia bada, beste bat zergatik? Eta atletismozaleok ez al dugu eskubiderik gure gustuko kirola leku egoki batean maiztasunez entrenatzeko?

Bistakoa da hau ez dela bidezkoa; futbolariek hainbat futbol-zelai, pilotariek ere, zenbait frontoi herriko leku ezberdinetan... baina atletismoko pistarik ez.

Nire proposamena da atletismoko pista edo, honek kostu handia badu, modulu eraikitzea. Moduluak kostu gutxiago du. Honela asko eskertuko genuke kirolzale oiartzuarrok.

Gainera, aipatu beharra dut pista bat eraikiz gero, herrian bertan txapelketak eta probak antolatuko liratekeela. Bide batez, inguruetako herrietako jendea erakarriko genuke ikusle edo partaide gisa. Honek ondorio positibo asko dauzka. Hasteko herria kanpoan gehiago ezagutu litzateke; hau da, Oiartzun herriaren berri komunikabideetan nahiz jendearen ahotan izango genuke.

Honetaz gain, esan genezake inbertsio ekonomikoa egin dezakeela udalak hau eraikitzeko; hasieran, dirua gastatu behar izango duen arren, denborarekin ekonomia galera hau irabazia bilaka daiteke. Izan ere, kanpoko jendea etorritakoan, herriko kontsumoaren hazkunde nabarmena ikusi ahal izango genuke.

Beraz, espero dut noizbait arazo honi irtenbidea ematea eta, ahal izanez gero, ni kirol mundutik irten baino lehen. Nire iritziz, herrian kirolzaletasun handia dagoenez eta noizbait erabaki hau hartu behar duten pertsonak ohartu direlakoan nago.

**Egilea: Olaia Azpiroz
DBH 4B**



VIAJE SOLIDARIO A ECUADOR

La impresionante experiencia de unos jóvenes voluntarios

Ésta es la historia de un grupo de jóvenes, que por segunda vez han ido a Ecuador a trabajar durante el verano.

Hace un par de años un grupo de jóvenes de Oiartzun decidieron emprender un proyecto solidario. Todo empezó cuando una compañera del grupo disfrutó de un viaje a Ecuador con su abuela. Quedó impresionada y decidió proponer al grupo de la parroquia un trabajo de ámbito social. Su proyecto cuajó bien en el grupo y se pusieron manos a la obra.

Por otro lado Joxin, el párroco de Arragua, había acudido a unas jornadas solidarias en Barcelona y de ahí surgió la posibilidad de acudir a RICAURTE en la provincia de Cuenca.


Edorta, Jon, Mikel, Ismael, Jokin, Miren, Judith, Eider, Ohiane, Ane y Joxin (el párroco) así nos lo contaron. "Nuestra primera misión era conseguir el dinero y nos pusimos a organizar distintas actividades para conseguir el dinero: cantar canciones en Navidad, trabajar en Gautena... Y cada uno de nosotros ponía 10 euros más cada mes." Otro de los problemas, según nos contó Joxin, podría ser la convivencia, por eso decidieron convivir dos días todo el grupo en el local de la Iglesia en las mismas condiciones que tendrían en Ecuador. Y así emprendieron el viaje.

El viaje y la realidad de Ecuador

"Bajar del avión y era ver un documental en directo" afirma Mikel. Del aeropuerto se desplazaron en autobús, cuentan que el desorden era total. De once que fueron sólo llegaron las maletas de tres a la escuela.

A los 30 kilómetros se encontraron con un tiroteo y a los 40km una huelga de campesinos. La realidad social era muy dura y el peligro se sentía rápidamente. Ohiane manifiesta que "pensaba que no íbamos a volver".

A la mañana siguiente fueron a la escuela y tuvieron que elegir el aula en el que tenían que trabajar. La escuela se encuentra en una zona rural y en ella



"Pensaba que no íbamos a volver"

tienen cabida todos los niños discapacitados y enfermos. Se cree que todo puede ser debido al insecticida que se utiliza en los plataneros. Cuentan que en una familia un niño enfermo es la ruina, la medicina es 10 veces más cara que aquí.

Joxin cuenta cómo llevaron a un niño al Hospital. Tuvieron que hacer un trayecto de 6 horas en autobús, ponerse en una cola enorme para comprar unos boletos que para cuando te tocaba el turno para comprarlos no sabías si quedarían. Con los boletos que conseguías, una enfermera te dictaba lo que había que comprar para acudir al médico. "Por ejemplo para vacunarte necesitas comprar la aguja, la jeringa... Si necesitas hacer unas pruebas hay que pagarlas. 6 horas de autobús, 3 horas de cola y la consulta 10 minutos".

La población está muy machacada y sin ninguna esperanza de cambio. Existe mucha corrupción y se



empieza a consumir droga. La situación de la mujer también es muy dramática. "Existe el maltrato, los hombres son infieles y beben mucho, la violencia se vive con normalidad" Son las palabras de Joxin y Miren acerca de la realidad de la mujer.

La escuela

Los alumnos de la escuela son discapacitados: niños-as con síndrome de down, sordos, mudos, ciegos, con parálisis cerebral... Cada miembro del grupo eligió un aula para trabajar y tuvieron que adaptarse rápidamente.

Así Mikel trabajó con niños y jóvenes de alrededor de 20 años en la huerta. Ohiane con los sordos y en una semana aprendió el lenguaje de los signos. Eider con niños ciegos y con parálisis cerebral de 6-16 años y ella también aprendió braille. Jon y Joxin con chavales que estaban en silla de ruedas. "Y yo me quedé con el aula que nadie quería. Hiperactivos y con problemas de lenguaje, increíble, horrible" cuenta Miren.

"Al principio me dediqué a arreglar el material que tenían abandonado, inservible. Los trabajos manuales sirven para algo, -se ríe Miren-, y luego les enseñaba el A, E, I, O, U y a recitar los números".

**"La medicina
es 10 veces
más cara"**

El primer año acudieron 11 personas y funcionaron como una piña, dicen que se cuidaron mucho. Trabajaron duro durante 30 días y dicen que eso les permitió volver. Por otro lado, son conscientes de que el colegio se arriesgó también al dejarles volver. Este año han podido ir 7 personas, sabían a dónde iban y a qué iban y han estado 40 días. Según cuentan se han integrado más, hacían planes con la gente del pueblo y el profesorado, todas las tardes salían a dar una vuelta. "Hay dos cosas que debes saber si vas a Ecuador y son BAILAR Y HACER DEPORTE" cuenta Jokin. Dicen que han estado en más casas, se han relacionado más y "nos hemos sentido peor, más abrumados. Cuanto más te relacionas te duele más, sientes más dolor e impotencia".

Cuentan el caso de Moisés, un niño con hidrocefalia que no podía acudir a la escuela porque su madre estaba enferma. Todos los días Jokin y Mikel recorrían dos kilómetros para ir a buscarlo. O el caso de Leonardo, un niño ciego sordo y mudo, que no permitía que nadie le tocara.

Un día en la escuela

"Nos despertábamos a las 4:30 con el panadero aunque nos levantábamos a las 7:00 - comenta Judith entre risas-. A las 8:00 estábamos limpiando la clase. A las 10:30 el almuerzo, a las 12:30 la comida, a las 13:30 vuelta a clase. A las 15:00 la merienda y a partir de las 16:00 cada uno se iba a su casa. Hacíamos la compra, preparar la cena, cenar y a la cama. Algunos han perdido 11 kilos, otros 7".

"Lo que se quiere asegurar en esta escuela es LA ALIMENTACIÓN, LA SALUD Y LA EDUCACIÓN, por ese orden" dice Jokin.



Otra de las cosas que les ha llamado la atención es la violencia en clase, "una bofetada y no pasa nada; se ríen". El castigo corporal dicen que es muy fuerte, que incluso pegaban con látigo.

La gente del pueblo les acogió muy bien, y al ser el segundo año más. Dicen que a los vecinos del pueblo se les hacía raro ver a unas personas trabajando sin cobrar y el hecho de que trabajasen en esa escuela era todavía más impactante. "Les da miedo esa escuela, piensan que la enfermedad es un castigo".

Les han invitado a comer a sus casas pero dicen que estas familias nunca comían con ellos, y es más, les ofrecían todo lo que tenían "y eso cuesta aceptarlo cuando ves que apenas tienen para comer" cuenta Miren. "Hemos comido KUIA (conejo de indias) en Agato, hemos estado en Otawalo, en Quito, en Babahoyo; hemos podido hacer turismo pero no hemos querido" dice Eider.

Estaban tan enganchados con el pueblo, el trabajo y la convivencia que no necesitaban hacer turismo.

Momentos positivos y negativos

Lo negativo dicen que es la situación de la mujer. Negativo y frustrante. Una niña con 13 años es madre. Sale de una casa donde ha sido maltratada para entrar en una relación donde va a ser maltratada.

En cuanto a los momentos positivos dudan y piensan mucho, pero al final contestan:

**"Cuanto más
te relacionas
más te duele"**

Para Oihane, la relación entre la gente. Para Mikel, la primera noche. Para Jokin, las chicas. Para Jon, relación con la gente. Para Miren, la primera sonrisa de los niños por la mañana. Para Judith, el recuerdo de cómo jugaban todos juntos y las risas. Para Eider, como le pedían que les cantase. Para Joxin, la primera vez que caminó un niño que iba en silla de ruedas.

"De todas formas -añade Joxin- hemos recibido mucho humanamente, afectivamente; siempre añoraré lo que allí sigue existiendo porque aquí ya lo hemos perdido."

Terminan contando que a los quince días de llegar del viaje ya estaban haciendo sustituciones en Gaudena para sacar dinero para el próximo viaje aun sabiendo que no todos podrán ir.

**EGILEA: LUR MITXELENA
DBH 4A**



ZEIN TRESNA
ERABILTZEN ARI DA
PERTSONAIA
BAKOITZA?



LETRA-ZOPA
HONETAN HAMAR
KOLORE-IZEN
AURKITUKO
DITUZUE.

A	T	A	R	L	H	M	A	I	B
R	S	L	K	M	O	R	E	A	H
R	O	K	G	J	R	T	U	B	J
O	U	L	O	B	I	H	E	E	I
S	Z	U	R	I	A	L	A	R	L
A	N	R	R	M	T	S	B	D	R
L	U	D	I	Z	A	Z	R	E	I
X	A	I	A	J	N	A	R	A	L
E	B	N	H	O	R	G	M	U	T
Z	X	A	K	S	G	R	I	S	A



- Minutu bat bakarrik izan da, presaka nabil eta

- Haurra utzi eta etortzea besterik ez da izan.....

Baina errealitatea zein da? Minutua 10 minutu baino gutxiagokoa nekez izaten dela, guztiok dakigu hau.

Gauza da, askotan, ondo aparkatzea dela arazo gehien sortzen digun egoera; ondo aparkatua dagoen autoa ezinezkoa da ordu askotan aparkalekutik ateratzea.

Ikastolako aparkalekuaz ari gara, bai, gure aparkalekuaz! Egia asmatua duzuela?

Ez da zaila, egunerokoa izaten baita; eta zer esanik ez eguraldi euritsua dugun egunetan!

Hala ere, gaurkoan, EZINDUEN APARKALEKUAZ pentsatzea da idatzi honen helburua: guztiok dakigun moduan aparkaleku guztietan ezinduentzat plaza batzuk egin behar dira, legez, eta gurean leku hauek baditugu: 2 leku hain zuzen ere.


Baina ez ditugu aparkalekuak soilik, haur ezindu batzuk ere baditugu; haur alaiak, sinpatikoak, jatorrak, maitagarriak.... Beste guztiak bezalakoak. Baina beren eguneroko bizitzan besteek ez dituzten ezin batzuei aurre egin behar dietenak.

Ez gaitzen gu izan traba bat gehiago jartzen diegunak;

APARKALEKUA ERRESPETA DEZAGUN!

(AH!.... PASA MEZUA!!!!)





“Oiertzuarren
zerbitzura gaude”

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN

☎ 943 49 13 75 • Fax 943 49 34 62



Biok
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



SEAT Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN
MERKATARITZA ZENTRUA